



## DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2017

### LANBIDE

|  |    |
|--|----|
| 1. Kudeaketa-gomendioa – Langile langabeentzako eta landunentzako prestakuntza ematea Ekonomiaren Garapena eta Azpiegitura Sailaren mendeko LHko ikastetxe publikoetan .....                       | 3  |
| 2. Kudeaketa-gomendioa - Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren titulartasun juridikoko LHko ikastetxe publikoak. Langile langabeentzat eta landunentzat bideratutako prestakuntza-eskaintza ..... | 5  |
| 3. Proiektu bereziak .....   | 7  |
| 4. Lehentasunez langile langabeentzat diren prestakuntza-ekintzak (82/2016 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duena) .....                                | 8  |
| 5. HEZIBI programa – Gazteek prestakuntza eta lana aldizkatzea .....   | 10 |
| 6. HOBETUZ. Lehentasunez Euskal Autonomia Erkidegoko langile landunentzat diren enplegurako prestakuntzako diru-laguntzen 2017ko ekitaldirako deialdia .....                                       | 12 |
| 7. HOBETUZ. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoetarako diru-laguntzen 2017ko ekitaldirako deialdia .....                                       | 14 |
| 8. Kudeaketa-gomendioa – Lanbidek antolatutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten langabeentzako hizkuntza-gaikuntza .....  | 15 |
| 9. Gazte langabeen prestakuntza eta kontratazioa, gazteen enplegurako 2014-2020 aldirako programa eragilearen esparruan .....  | 16 |
| 10. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria .....   | 17 |
| 11. Pertsona ekintzaileentzako laguntzak .....   | 19 |
| 12. Txanda-Kontratua .....   | 21 |
| 13. Familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzeko laguntzak .....   | 22 |
| 14. Desgaitasuna duten pertsonak Enplegu Zentro Berezietan laneratzea sustatzeko laguntza eta diru-laguntza publikoak .....  | 24 |
| 15. Gizarte Segurantzako kuotetarako diru-laguntza langabezia-prestazioa kobratzen duten onuradunentzat. Ordainketa bakarra .....  | 25 |
| 16. Desgaitasuna duten pertsonak enpresa arruntean iraupen mugagabez kontratatuzko diru-laguntzak .....  | 27 |
| 17. Enplegua sustatzeko tokiko laguntzak. Tokiko enplegua garatu eta sortzeko proiektuak .....   | 28 |
| 18. Laneratze-enpresetarako laguntzak .....  | 30 |
| 19. Laguntzak Sintel enpresako langileei .....   | 32 |
| 20. Enplegu-zentro berezietan jarduera profesionala laguntzeko unitateak .....   | 34 |
| 21. Lehen Aukera programa .....  | 36 |
| 22. Desabantaila-egoeran dauden kolektiboek orientazioa emateko ekintzetarako laguntzak .....  | 38 |
| 23. Enplegu-zentroyen zerbitzua garatzeko laguntzak .....  | 39 |



|   |    |
|---|----|
| 24. Orientazio orokorra - enplegurako orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak garatzeko laguntza-deialdia ..... | 40 |
| 25. 35 urtetik gorako pertsona langabeak euskal enpresen kanpoko lantokietan kontratatzea.....              | 41 |
| 26. Gazte langabeak atzerrian ezarritako euskal enpresetan praktiketan kontratatzekeo laguntzak .....       | 43 |
| 27. Enplegu lagundua, desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean integratzeko neurri gisa.....      | 45 |
| 28. Gazteen itzulerarako programa .....   | 47 |



## 1.- Izenburua

**Kudeaketa-gomendioa – Langile langabeentzako eta landunentzako prestakuntza ematea  
Ekonomiaren Garapena eta Azpiegitura Sailaren mendeko LHko ikastetxe publikoetan**

## 2.- Araua

AKORDIOA, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Ekonomiaren Garapena eta Azpiegitura Sailaren artekoa, EAEko pertsona langabeentzako eta landunentzako prestakuntza-programazioa gauzatzeko kudeaketa-gomendioari buruzkoa (2017ko abenduaren 7ko EHAA).

## 3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Akordio honek aipatzen duen kudeaketa-gomendioaren helburua da Ekonomiaren Garapena eta Azpiegitura Sailak nekazaritzaren, elikagaigintzaren eta itsasoa eta arrantzaren arloko prestakuntza-programazioa egitea, Sailak erabiltzeko eskubidea duen Lanbide Heziketako ikastetxe publikoen eta HAZI Fundazioa prestakuntza-erakundearen bidez. Honako hauentzat izango da prestakuntza hori:

- a) Langile langabeentzat (akordioaren I. eranskinean jasota dago).
- b) Langile landunentzat, lehentasunez (akordioaren II. eranskinean jasota dago).

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Kudeaketa-gomendio honen xede den prestakuntza-programazioa finantzatzeko bideratutako kreditua 354.994,50 eurokoa da, guztira, honela banatuta:

- 308.015,25 euro langile langabeentzako prestakuntza-ekintzetarako. Horietatik 77.003,81 euro 2017ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 231.011,44 euro, berriz, 2018ko konpromiso-kredituari.
- 46.979,25 euro lehentasunez langile landunentzako prestakuntza-ekintzetarako. Horietatik 11.744,81 euro 2017ko ordainketa-kredituari dagozkio eta 35.234,44 euro, berriz, 2018ko konpromiso-kredituari.

**Helburu gisa ezarritako emaitzak:**

Diru-hornidura: 354.994,50 €

Prestakuntza-ekintzak: 19 (12 langabeentzat eta 7 landunentzat)

Prestakuntzaren hartzaileen kopurua: 285 (180 langabeen lerroan eta 105 landunen lerroan)

**Izandako emaitzak:**

Egikaritua: 354.994 €

Prestakuntza-ekintzak: 19 (12 langabeentzat eta 7 landunentzat)

Prestakuntza jaso duten pertsonak: 288 (183 langabeen lerroan eta 105 landunen lerroan)

**Emaitzen azterketa, baliagarritasuna eta gizarte-eragina:**

Tresna juridiko honen bitartez lortzen da kualifikazio handiena duten ikastetxeek –Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren mendeko ikastetxe publikoek– lehen sektoreko prestakuntza espezializatua ematea. Prestakuntza lanbide-arlo hauetan: Itsasoa eta arrantza, Nekazaritza eta Elikagaien industriak.



## 1.- Izenburua

**Kudeaketa-gomendioa - Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren titulartasun juridikoko LHko ikastetxe publikoak. Langile langabeentzat eta landunentzat bideratutako prestakuntza-eskaintza**

## 2.- Araua

AKORDIOA, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Hezkuntza Sailaren artean hitzartutako kudeaketa-gomendioari buruzkoa, EAEko langile langabetuei eta landunei zuzendutako prestakuntza-programazioa egitekoa (2017ko abenduaren 12ko EHAA).

## 3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

kudeaketa-gomendioari buruzko akordio honetan bildutako prestakuntza-eskaintza diseinatu dute, Euskal Autonomia Erkidegoko langabetuei eta landunei zuzendua, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mende dauden lanbide-heziketako ikastetxe publikoetan gauzatuko dena. Ikastetxe bakoitzeko prestakuntza-ekintzak izango dira profesionaltasun-ziurtagiria lortzera bideratuta daudenak, izaera berritzaileko prestakuntza-ekintza ez-formalak, edo funtsezko kompetentzietan landunei prestakuntza ematera bideratutako sektore produktibo jakin bateko berariazko edo/eta zenbait jarduera-sektoretako kompetentzia horizontal eta zeharkakoak.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Kudeaketa-gomendio honen xede den prestakuntza-programazioa finantzatzeko 8.098.655,82 € bideratu dira. Horietatik:

- 5.998.837,60 euro langile langabeentzako prestakuntza-ekintzetarako; horietatik 1.999.412,57 euro 2017ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 3.999.425,03 euro, berriz, 2018ko konpromiso-kredituari.
- 2.099.818,22 euro lehentasunez langile landunentzako prestakuntza-ekintzetarako, eta horietatik 524.954,55 euro 2017ko ordainketa-kredituari dagozkio eta 1.574.863,67 euro, berriz, 2018ko konpromiso-kredituari.

**Helburu gisa ezarritako emaitzak:**

2017ko aurrekontua: 8.098.655,82 €

Prestakuntza-ekintzak: 501 (134 langabeen lerroan eta 367 landunen lerroan)

Prestakuntza jaso duten pertsonak: 6.609 (2.007 langabeen lerroan eta 4.602 landunen lerroan)

**Izandako emaitzak:**

2017an egikaritua: 7.397.074,00 €

Prestakuntza-ekintzak: 476 (119 langabeen lerroan eta 356 landunen lerroan)

Prestakuntza jaso duten pertsonak: 6.449 (1.821 langabeen lerroan eta 4.628 landunen lerroan)

**Emaitzen azterketa, baliagarritasuna eta gizarte-eragina:**

Kudeaketa-gomendio honen bidez, kalitate handiko lanbide-heziketa lortzen da profesionaltasun-ziurtagirien bidez. Programa honetako prestakuntza industria-sektorerara bideratuta dago gehienbat, zentro publikoak sektore horretan daudelako hobekien hornituta (baita itunpeko zentro handiak ere). Era berean, langabeei gainerako jarduera ekonomikoen inguruko prestakuntza ematen zaie, baina maila apalagoan, arlo horretan eskaintza oparoa baitute deialdi arruntean parte hartzen duten zentro pribatuek.



## 1.- Izenburua

**Proiektu bereziak**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2017ko urriaren 4koa, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita lana duten langileei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten pertsona langabeei zuzendutako proiektu berezien garapenerako diru-laguntzen 2017ko ekitaldiko deialdia.

## 3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da Proiektu Bereziak finantzatzera bideratutako 2017. urterako laguntzak arautzea, gizartean eta lanean txertatzeko edo langileen enplegarritasuna hobetzeko jarduera integralak diren aldetik, zenbait motatako esku-hartzeak beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin biltzen edo koordinatzen dituenak.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ko urriaren 4ko 4782 Ebazpenaren arabera, deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 3.500.000 eurokoa da; horietatik 1.750.000 euro 2017ko aurrekontu arruntean jaso dira, eta 1.750.000 euro 2018rako adostutakoan.

**Helburu gisa ezarritako emaitzak:**

2017ko aurrekontua: 3.500.000 €

**Izandako emaitzak:**

2017an egikaritua: 2.381.999,65 €

Onartutako proiektuak: 24 proiektu

Proiektuetako prestakuntza-ekintzetako parte-hartzaileak: 2.496



## 1.- Izenburua

**Lehentasunez langile langabeentzat diren prestakuntza-ekintzak (82/2016 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duena)**

## 2.- Araua

82/2016 Dekretua, maiatzaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duena.

2017ko ekitaldirako deialdia, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2017ko apirilaren 26ko bilkuran hartutako Erabakiaren bidez onartutakoa (2017ko maiatzaren 2ko EHAA).

## 3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Ebazpenaren bitartez finantzabidea eman zaien prestakuntza-ekintza hauekin, Euskal Autonomia Erkidegoko langabeek aukera dute, lehentasunez, haien enplegarritasuna modu eraginkorrean hobetuko duen prestakuntza-eskaintza zabala izateko.

Eskaintza honen beste helburu bat da langileek jasotako prestakuntza egiaztagarria izatea eta lortutako gaitasunak Profesionaltasun Ziurtagirien Euskal Erregistroan jasota egotea.

Deialdi honen bidez, bi jarduera-ildo jorratzen dira:

- Kontratatzeko konpromisoa duten ekintzak.
- Lehentasunez langabeen enplegarritasuna eta laneratzea handitzeko bestelako prestakuntza-ekintzak.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ko apirilaren 27ko 2165 Ebazpenaren arabera, deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 33.100.000 eurokoa da; horietatik 16.550.000 euro 2017ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 16.550.000 euro 2018ko konpromiso-kredituari.

**Helburu gisa ezarritako emaitzak:**

2017. urteko hasierako aurrekontua: 33.100.000 €

Prestakuntza-ekintzak: Prestakuntza-ekintzen kopuruari dagokionez ez da helbururik ezarri, bai ordea prestatu beharreko pertsonen kopuruari dagokionez.

Prestakuntza jaso duten pertsonak: 19.000

**Izandako emaitzak:**

2017an egikaritua: 31.357.897,00 €

Prestakuntza-ekintzak: 1.185 prestakuntza-ekintza (60 kontratazio-konpromisoarekin, eta 1.125





enplegagarritasuna eta laneratzea handitzeko bestelako prestakuntza-ekintzak dira).

Prestakuntza jaso duten pertsonak: 18.474 (862 kontratazio-konpromisoarekin eta 17.612 bestelako prestakuntza-ekintzak dira).

Kontratazio-konpromisoak: 431

**Eraitzen azterketa, baliagarritasuna eta gizarte-eragina:**

Onartutako prestakuntza-ekintzei esker, parte-hartzaileen % 60k jaso du prestakuntza egiaztagarria —hau da, profesionaltasun-ziurtagiriek lotuta prestakuntza—. Prestakuntza egiaztagarri eta kalifikatzaile honek lanpostu baten berezko zereginak egiteko aukera ematen du. Halaber, prestakuntza eman zaie lan-merkatura sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonari, hala nola desgaitasuna dutenei eta laneratzeko zailtasunak eta kualifikazio txikia dituzten pertsonari. Azken horiek hizkuntzan eta matematiketan funtsezko gaitasunak bereganatzeko ikastaroak egin dituzte, prestakuntza egiaztagarria jaso ahal izateko beharrezkoa den baldintza betetzeko, bai eta gaitasun pertsonalak eta trebetasun sozialak garatzeko prestakuntza ere.



## 1.- Izenburua

**HEZIBI programa – Gazteek prestakuntza eta lana aldizkatzea**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2017ko apirilaren 27koa, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita zenbait diru-baliabide esleitzen dituen Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakia. Diru-baliabide horien bidez finantzatuko dira, 2017ko ekitaldian, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak emandako 2012ko urriaren 3ko Agindu bateratuan aurreikusitako laguntzak; agindu horren bidez ezarri ziren gazteentzako ikas-ekinezko Hezibi programaren oinarri arautzaileak.

## 3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Lanbide-heziketa eta lana aldizkatzeko ereduak. Lanbide-heziketako ikasleentzat eta gazte langabeentzat enpresen barruan enpleguari eta bestelako irakasbideei lotutako prestakuntza-ekintzak bultzatzea, enpresako lan-jarduera ordaindua eta profesionaltasun-ziurtagiri bat edo hasierako lanbide-heziketako titulu bat lortzeko ikasketak aldizkatuz gazte horien lanbide-gaitasunak hobetzeko, eta, era berean, enpresen premiak eta langileek eskuratutako gaitasunak uztartzen laguntzeko.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartearen

2017ko apirilaren 27ko 2181 Ebazpenaren arabera, deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 1.470.000 eurokoa da; horietatik 595.000 euro 2017ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 875.000 euro 2018ko konpromiso-kredituari, 3231 programaren kargura (Prestakuntza).

**Helburu gisa ezarritako emaitzak:**

2017ko aurrekontua: 1.470.000 €

Lehenengo lan-esperientzia gazteentzat (pertsonek): 625

**Izandako emaitzak:**

2017an egikaritua: 1.413.766 €

Lehenengo lan-esperientzia gazteentzat (pertsonek): 648

**Emaitzen azterketa, baliagarritasuna eta gizarte-eragina:**

Prestakuntza dualak zuzeneko eragina du Lanbide Heziketako titulu bat edo profesionaltasun-ziurtagiri bat lortzeko ikasten ari diren gazteen enplegarritasunean. Izan ere, gazteak prestakuntza- eta ikasketak kontratu baten bidez kontratatzen dituzte, eta horrek abantaila ugari dakarzikie hala enpresei nola langileei.



2017an 897 diru-laguntza eskatu dira. Horietatik 648 onartu dira, eta 249ri eman zaie ezezkoa; azken horietatik 54 zenbait baldintza ez betetzeagatik, eta 195 aurrekontua agortu delako. Aurrekontua agortu delako ezezko erantzuna jaso duten eskaerei 2018ko horniduraren bitartez erantzungo zaie. Aurten 648 ikaslek parte hartu dute diruz lagundutako HEZIBI proiektuaren bidezko ikas-ekinezko prestakuntzan.



## 1.- Izenburua

**HOBETUZ. Lehenasunez Euskal Autonomia Erkidegoko langile landunentzat diren enplegurako prestakuntzako diru-laguntzen 2017ko ekitaldirako deialdia**

## 2.- Araua

2371 EBAZPENA, 2017ko maiatzaren 11koa, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoan lana duten langileei lehenasunez zuzendutako enplegurako prestakuntzarako diru-laguntzen 2017ko ekitaldiko deialdia, Lanbideren Administrazio Kontseiluaren erabaki bidez onartua, 2017ko maiatzaren 10eko bilkuran (2017ko maiatzaren 12ko EHAA).

## 3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Enplegurako lanbide-heziketako azpisistemaren prestakuntza-ekimenaren helburua, nagusiki, landunei prestakuntza-ekintzak eskaintzea da, maila indibidualean konpetentziak eta kualifikazioa hobetu ditzaten edo birkalifikatu daitezten. Pertsona landunekin batera, deialdi honetan jasotako ekintzetan parte hartu ahal izango dute Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emandako langile langabeek; azken horiek ezingo dira izan plan horren barruan prestakuntza jasotzen hasten direnen % 40 baino gehiago. Ekimen honen bidez, biztanleria aktiboak bizitza osoan enplegagarritasuna eta prestakuntza hobetzeko modua izan dezan lortu nahi da, eta, aldi berean, enpresen produktibitatea eta lehiakortasuna sustatu.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ko maiatzaren 11ko 2371 Ebazpenaren arabera, deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 12.560.000 eurokoa da; horietatik 6.280.000 euro 2017ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 6.280.000 euro 2018ko konpromiso-kredituari.

**Helburu gisa ezarritako emaitzak:**

2017ko kreditua: 12.560.000 €

**Izandako emaitzak:**

2017an egikaritua: 12.560.000 €

Ikasle-kopurua: 18.196

**Emaitzen azterketa, baliagarritasuna eta gizarte-eragina:**

Lanbide-heziketako sistemaren barruan dauden ekimenetatik, lehenasunez pertsona landunentzat den prestakuntza da, oro har, haien heziketan eragin handiena duenetako bat; gainera, pertsona langabeek ere parte har dezakete prestakuntza horretan. Prestakuntza hau baliagarria da



pertsonen konpetentziak –hala kalifikatzaileak nola zeharkakoak– hobetzeko; gainera, prestakuntza egiaztatzeko modua ematen du, profesionaltasun-ziurtagiriaren bidez. Programaren gizarte-eragina nabarmena da, pertsona landunei zein langabeei prestakuntza jasotzeko aukera ematen dielako eta lanpostuan behar diren konpetentzia profesionalak hobetzea lortzen duelako.



### 1.- Izenburua

**HOBETUZ. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoetarako diru-laguntzen 2017ko ekitaldirako deialdia**

### 2.- Araua

2370 EBAZPENA, 2017ko maiatzaren 11koa, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen aldetik garatzen diren prestakuntzako estrategia-ekintzak egiteko laguntza ekonomikoen 2017ko ekitaldirako deialdia argitaratzen da. Lanbideren Administrazio Kontseiluaren erabaki bidez onartua, 2017ko maiatzaren 10eko bilkuran (2017ko maiatzaren 12ko EHAA).

### 3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek beren langileen kompetentziak eta kualifikazioak hobetzeko programaturiko prestakuntza-ekintzak (prestakuntzako estrategia-ekintzak) garatzeko laguntza ekonomikoak.

Estrategia-ekintzak enpresaren proiektuari zuzenean lotuta daude, eta premien diagnostiko batean edo antzeko dokumentu batean aintzat hartuta egon daitezke, aurkezturiko ekintzen eta horiek hartuko dituzten langileen lehentasunaren adierazgarri den heinean.

### 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ko maiatzaren 11ko 2370 Ebazpenaren arabera, deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 3.140.000 eurokoa da; horietatik 1.570.000 euro 2017ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.570.000 euro 2018ko konpromiso-kredituari.

#### **Helburu gisa ezarritako emaitzak:**

Aurrekontua: 3.140.000 €

#### **Izandako emaitzak:**

Egikaritua: 3.140.000 €

Ikasle-kopurua: 15.530

#### **Emaitzen azterketa, baliagarritasuna eta gizarte-eragina:**

Enpresentzako ekintza estrategikoei eragin positiboa dute diru-laguntzak eskatzen dituzten enpresetan lanean ari diren pertsonen prestakuntzan. Hain zuzen, ematen den prestakuntzaren bidez enpresak zehaztutako prestakuntza-helburuak bete nahi dira. Langileak jasotzen duen prestakuntzari esker, bere lana hobeto egin ahal izango du, eta hobeto egokituko da enpresak bere eguneratze-prozesuan eta produkzioaren bilakaeran egin behar dituen teknologia- eta prozesu-aldaketetara.

Prestakuntza honek inpaktu handia du, 400 enpresatik gora eta 15.000 parte-hartzaitetik gora izan baitira.



## 1.- Izenburua

**Kudeaketa-gomendioa – Lanbidek antolatutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten langabeentzako hizkuntza-gaikuntza**

## 2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) arteko kudeaketa-gomendioari buruzko AKORDIOA, Lanbidek antolatutako trebakuntza-ekintzetan parte hartzen duten langabeek euskaraz gaitzeko trebakuntza-ekintzak egin ahal izan ditzaten (2017ko irailaren 4ko EHAA).

## 3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Akordio honek aipatzen duen kudeaketa-gomendioaren helburua da Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) euskarazko gaikuntzarako ekintzak egitea Lanbidek programatutako trebakuntza-ekintzetan parte hartzen duten langile langabeei zuzenduta.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Kudeaketa-gomendio honen xede den prestakuntza-programazioa finantzatzera bideratuko den kreditua 200.000 eurokoa da guztira; horietatik 100.000 euro 2017ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 100.000 euro 2018ko konpromiso-kredituari.

**Helburu gisa ezarritako emaitzak:**

2017ko aurrekontua: 100.000 €

Prestakuntzaren hartzaileen gehieneko kopurua: 500

**Izandako emaitzak:**

2017an egikaritua: 32.010 €

Prestakuntza jaso duten pertsonak: 93

**Emaitzen azterketa, baliagarritasuna eta gizarte-eragina:**

Emaitzak apalak badira ere, langabeei euskararen gaineko kompetentziak hobetzeko aukera ematea baliagarritzat jotzen da.



## 1.- Izenburua

**Gazte langabeen prestakuntza eta kontratazioa, gazteen enplegurako 2014-2020 aldirako programa eragilearen esparruan**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2017ko urriaren 4koa, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bidez, gazte langabeak prestatu eta kontratatzeko 2017rako diru-laguntzen deialdia argitaratzen da, gazteen enplegurako 2014-2020 aldirako programa eragilearen esparruan.

## 3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Prestakuntza eta kontratazioa konbinatzen dituzten proiektuak finantzatzeko laguntzak. Proiektu horiek Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatu beharko dira, gazte langabeentzat, gazteen enplegurako 2014-2020 aldirako programa eragilearen esparruan.

Helburua da lanik gabe dauden gazteak laneratzea, kontratatzeko konpromisoa dakarten prestakuntza-proiektuen bitartez, eta prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuetan oinarritutako prestakuntza dualeko proiektuak baliatuta.

Programa honek enpresan sartzeko behar den prestakuntzarako diru-laguntza ematen du, bai eta 6 hilabete edo gehiagoko kontratua egiteko diru-laguntza ere. Kontratatzeko konpromisoen kasuan 6.000 euroko diru-laguntza izan daiteke, eta prestakuntza dualetan 3.500 eurokoa.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartearen

**Helburu gisa ezarritako emaitzak:**

Aurrekontua: 10.000.000 € (3.132.000 € prestakuntzarako eta 6.868.000 € kontrataziorako).

Prestakuntzaren hartzaileen gehieneko kopurua: 1.610 gazte

**Izandako emaitzak:**

2017an egikaritua: 324.364 € prestakuntza-ekintzetan

Prestakuntza jaso duten pertsonak: 116 parte-hartzaile

Kontratazioa 2018an, 2018ko aurrekontuen kargura. 87 gazte kontratatzea aurreikusi da.

**Emaitzen azterketa, baliagarritasuna eta gizarte-eragina:**

Espero baino emaitza apalagoak izan ditu programak; beraz, inpaktua da 116 gaztek prestakuntza jaso dutela eta haietatik 87 kontratatuko dituztela aurreikusten dela.





## 1.- Izenburua

**Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria**

## 2.- Araua

- 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.
- 147/2010 Dekretua, maiatzaren 25ekoa, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa.
- 2/2010 DEKRETUA, urtarrilaren 12koa, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriari buruzkoa.
- AGINDUA, 2001eko otsailaren 14koa, oinarrizko errentaren titularrentzat eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunentzat lanean hasteko pizgarriak ezartzeko dena.
- 4/2011 LEGEA, azaroaren 24koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duena.

## 3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-sarrerak bermatzeko errenta aldizkako prestazio bat da, baita izaera ekonomikoa duen eskubide subjektiboa ere. Bizikidetzako unitateko pertsona jakin batzuek jasotzen dute, oinarrizko beharriaz lotuta dauden gastuak eta laneratzeko edo gizarteratzeko prozesu bati lotuta dauden gastuak ordaintzeko diru-sarrera nahiko ez duten horiei, hain zuzen.

Etxebizitzarako prestazio osagarria aldizkako prestazio ekonomikoa da, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta osatzeko eraturakoa. Etxebizitzaren edo ohiko bizitokiaren alokairu-gastuak ordaintzera bideratzen da, alokairuaren edozein modalitatetan, hots, errentamendua, azpierrementamendua, beste batzuekin batera egindako errentamendua, ostatu hartzea eta gelen alokairua.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Ebazpenaren/Deialdiaren aurrekontu-datuak

**Aurreikusitako emaitzak:**

2017ko kreditua DSBERako eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarrirako: 491.300.000 €

DSBE / Etxebizitzarako PO prozeduretako ebazpenak: 148.593

**Benetako emaitzak:**

2017ko betearazpena 484.541.360 € €

DSBEko espedienteak/titularrak, batez beste: 62.073

Etxebizitzarako POko espedienteak/titularrak, batez beste: 29.721

Onuradunak, batez beste: 111.679

**Emitzen, gizarte-onuraren eta gizarte-eraginaren azterketa:**

EAEko gizarteko kolektibo ahulenak babesteko programa bat da, eta bete da helburua: 2016. urtean zehar 65.000 familia babestu dira.



## 1.- Izenburua

**Pertsona ekintzaileentzako laguntzak**

## 2.- Araua

2017an pertsona ekintzaileak babesteko laguntzen deialdia, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2017ko uztailaren 26ko bilkuran onartua (EHAA, 2017ko uztailak 28).

## 3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko ekintzaileak dira deialdiaren hartzaile. Lau ildo hauek ditu:

- a) Ekintzaile izan daitezkeen pertsoneri laguntzak ematea, berariaz lan egin dezaten enpresa-ideiak sortzeko, aztertzeko eta egituratzeko langintzan, ikaskuntzako tokiko proiektuen esparruan. (Enpresa-ideiak garatzeko laguntzak).
- b) Ikaskuntzako tokiko proiektuen esparruan, negozio-ideia zehaztuak dituzten pertsona ekintzaileei laguntzak ematea, enpresa-proiektu berriak abia ditzaten bultzatzeko. (Enpresa-proiektu berriak abian jartzeko laguntzak).
- c) Enpresa-ekimen bat abiatzen ari diren eta hura ezartzeko laguntza behar duten pertsonentzako laguntzak (Proiektua ezartzeko laguntzak).
- d) Enpresa-ekin bati ekin dioten eta proiektua egonkortzeko laguntza behar duten pertsonentzako laguntzak. (Enpresa-jarduerak finkatzeko laguntzak).

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

1.- Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 4.100.000 eurokoak dira guztira; horietatik, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2017ko aurrekontuko ordainketa-kreditukoak dira 2.705.000 euro, eta 2018ko konpromiso-kreditukoak 1.395.000 euro.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 4.100.00,00€

Sortutako enpresak: 550

Laguntza ekonomikoa eskuratu duten ekintzaileen kopurua: 1456

Erakunde laguntzaileen kopurua: 34

**Emaitza errealak:**

Gauzatutako aurrekontua: 1.146.402,14 €

Sortutako enpresak: 180

Laguntza ekonomikoa eskuratu duten ekintzaileen kopurua: 1.352

Erakunde laguntzaileen kopurua: 34

**Emitzen, gizarte-onuraren eta gizarte-eraginaren azterketa:**

Emitzek badute behar besteko munta, eta, aurreikusitakoak baino apalagoak diren arren, programak erabilgarritasun eta eragin soziala duela adierazi behar da, ekintzailtza enplegua sortzeko aukera bat den garaiotan; hala, sustatzen jarraitu behar da jarduera hori, oraindik ez delako behar besteko enplegurik sortzen besteren konturako araubidean, eta ekimenaren hartzaille nagusiak gazteak direlako, hau da, gainerako langabeena baino langabezia-tasa handiagoa duen kolektibo bat osatzen duten pertsonak direlako, batik bat, haren hartzaille.



## 1.- Izenburua

**Txanda-Kontratua**

## 2.- Araua

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2017ko uztailaren 26ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onartutako deialdia (EHAA, 2017ko uztailak 28).

## 3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Lanbiden izena emanda dauden 30 urtetik beherako gazteen enplegua sustatzen du, eta baita enpresetan iraupen jakineko kontratuekin lan egiten ari diren gazteena ere. Xede hori betetzeko, diruz laguntzen dira enpresek gazteen kolektibo horrekin egiten dituzten txanda-kontratuak, honako baldintza hau jarrita: kontratuak lanaldi osokoak eta iraupen mugagabeak izatea, edo bestela, iraupen zehatzekoak izanez gero, hasierako konpromisoa izatea kontratu horiek, amaitu ostean edo horiek bukatu aurretik, mugagabe bihurtuko direla. Era berean, txanda hartzeko kontratatzen den pertsonak gutxienez 12.000 € irabazi behar ditu urtean. Kontratu bakoitzeko 6.000 €-ko laguntza ematen da.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.000.000 eurokoak dira, horietatik Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2017ko aurrekontuko ordainketa-kreditukoak dira 600.000 euro, eta konpromiso-kreditukoak 400.000 euro.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 1.000.000 €

Kontratatu diren pertsonak: 166

**Emaitza errealak:**

Gauzatutako aurrekontua (2017 eta konprometitua): 184.634 €

Kontratatu diren pertsonak: 52

**Emaitzen azterketa, erabilgarritasun eta eragin soziala:** Aurreko deialdiaren antzekoak izan dira emaitzak, ezarritako helburuetatik nahiko urrun.



## 1.- Izenburua

**Familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzeko laguntzak**

## 2.- Araua

177/2010 Dekretua, ekainaren 29koa. Familia-bizitza eta lan-bizitza bateragarri egiteko laguntzak (IV. kapitulua). 31/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, lana eta familia bateragarri egiteko laguntzei buruzko Dekretua aldatzekoa.

Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2017ko maiatzaren 24an hartutako erabakiaren bidez egin zen 2017. urterako baliabide-esleipena (EHAA, 2017ko ekainak 7).

## 3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Langabe moduan inskribatuta dauden pertsonak kontratazeko diru-laguntzak emango dira, betiere jarraian azalduko diren pertsonak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten eta besteren kontura lan egiten duten langileak, edo kooperatiba-sozietateetako bazkide langileak edo lan-bazkideak ordeztzeko kontratatzen badira. Egoera horretan dauden pertsonen honako hauek zainduko dituzte:

- seme-alabak, 27.1.a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- mendekotasuna duten senideak edo muturreko osasun-larrialdi egoeran daudenak, 27.1.b) artikuluan ezarritako ahaidetasun-harremana dutenean.

Era berean, diruz lagunduko da alde zuzenetik lanaldi partzialerako kontratatutako langile baten lanaldiaren luzapena, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa duen beste langile baten lanpostua betetzeko egin baldin bada.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntza horiek finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.700.000 eurokoak dira 2017an.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 1.700.000

Diruz lagundutako kontratazioak: 1.835

**Emaitza errealak:**

Gauzatutako aurrekontua: 1.534.963 €

Diruz lagundutako kontratazioak: 1.328

**Emaitzen azterketa, erabilgarritasun eta eragin soziala**

Programaren erabilgarritasuna eta eragina adierazten dute kontratatutako eta enplegu-



eskataile gisa izena emandako langileen kopuruak eta kontratazio horiek programaren onuradun izan diren enpresetan izan duten eraginak, kontratazio horien bidez lortu baita, alde batetik, langileen lana eta familia bizitza bateragarri egitea, eta, bestetik, beste langile batzuk kontratatzea eta sinergie eustea programaren onuradun izan diren enpresetan.



## 1.- Izenburua

**Desgaitasuna duten pertsonak Enplegu Zentro Berezietan laneratzea sustatzeko laguntza eta diru-laguntza publikoak**

## 2.- Araua

Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren 1998ko urriaren 16ko Agindua, elbarriak enplegu eta lan autonomoko zentro berezietan laneratzeak aukera sustatzeko laguntza eta diru-laguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituena.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2017ko uztailaren 26ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez egin zen 2017rako baliabide-esleipena (EHAA, 2017ko ekainak 7).

## 3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Desgaitasuna duten pertsonen laneratzea, integrazio pertsonala eta gizarteratzea sustatzea, eta tresna bat izatea desgaitasuna duten ahalik eta pertsona gehien integratzeko lan-erregimen arruntean. Eginkizun horren osagarri, beren baldintza fisiko, psikiko edo intelektualetara egokitutako lanpostuak jartzen dira desgaitasuna duten langileen eskura.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartearen Laguntza horiek finantzatzeko baliabide ekonomikoak 38.943.700 eurokoak izan dira 2017an.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 38.943.700,00 €

Kontrataturako pertsonak (batezbesteko plantilla urtean): 9.000

Zentro-kopurua: 80

**Emaitza errealak:**

Gauzatutako aurrekontua: 38.940.053

Kontrataturako pertsonak (batezbesteko plantilla urtean): 9.478

Zentro-kopurua: 75

**Emaitzen azterketa, erabilgarritasun eta eragin soziala:**

Guztiak beti aktibitateari eusten ez dioten arren, enplegu-zentro bereziak etengabe ari dira lanpostuen kopurua handitzen. Lanpostuen batezbesteko gorakada % 5en eta % 8,2ren ingurukoa izan da 2016 eta 2017 urteetan.

Gaur egun, desgaitasuna duten 9.500 pertsonak dute, batez beste, lan-okupazioa eta -arreta, eta horrek eragin eta inpaktu sozial handia du, bai, batik bat, desgaitasuna dutenen familiengan eta dakarkien ongizatean, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzearen eta laneratzearen bidez.





## 1.- Izenburua

**Gizarte Segurantzako kuotetarako diru-laguntza langabezia-prestazioa kobratzen duten onuradunentzat. Ordainketa bakarra**

## 2.- Araua

Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren Agindua, 1994ko apirilaren 13koa, Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituena, 1044/1985 Errege Dekretuaren 4.2. artikulua xedatutakoaren arabera, langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen duten pertsonentzat.

31/2015 Legea, irailaren 9koa. Aldatu eta eguneratu egiten dira autoenpleguaren alorreko araudia, eta lan autonomia eta ekonomia soziala bultzatzeko eta sustatzeko neurriak hartzen dira.

Lanbideren Administrazio Kontseiluak onartu zuen deialdia 2017ko apirilaren 26an egindako bilkurak (EHAA, 2017ko maiatzak 9).

## 3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzaren xedea da lan elkartuko kooperatibetako edo lan-izaerako sozietateetako langile bazkideek, merkataritza-izaerako erakundeak eratzen eta abian jartzen dituzten pertsona langabeek eta beren konturako erregimenean lanean hasten direnek jarduera profesionalak egitea. Diru-laguntza eskuratzeko eskakizun ezinbestekoa da Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak ordainketa bakarreko modalitatean eman izana langabezia-prestazioa, prestazio horrek egun zuen zenbateko osoan.

Horretarako, diruz laguntzen dira goian adierazitako langileek Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuotak, baldin eta jasotzeko zuten langabezia-prestazioaren kopuru osoa batera eskuratzeko eskubidea erabili baldin badute, beren jarduera profesionalaren hasieran laguntzeko.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntza horiek finantzatzeko baliabide ekonomikoak 500.000 eurokoak izan dira 2016an.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua (2017rako Kreditua): 500.000 €

Ordainketa bakarreko prestazioa jaso duten pertsonak:

**Emitza errealak:**

Gauzatutako aurrekontua: 384.306,48 €

Ordainketa bakarreko prestazioa jaso duten pertsonak: 715 (guztira 1.326 ordainketa jaso dira).

**Emitzen azterketa, erabilgarritasun eta eragin soziala:**

Aurten ere handitu egin da prestazio hau jaso duten pertsonen kopurua, eta horrek esan nahi du handitu egin dela langabezia-prestazioa kapitalizatzea eta autoenpleguaren bidez lanean hastea erabaki duten pertsonen kopurua. Diru-ordainketa gehiago egin diren arren, gastuak behera egin du, diru-zenbatekoak txikiagoak izan direlako, Gizarte Segurantzako kuotei aplikatu zaizkien tarifa lauen eta hobarien ondorioz.



## 1.- Izenburua

**Desgaitasuna duten pertsonak enpresa arruntean iraupen mugagabez kontratatzeko diru-laguntzak**

## 2.- Araua

Lanbideren Administrazio Kontseiluak onartu zuen deialdia 2017ko maiatzaren 24an, maiatzaren 11ko 14/1983 Errege Dekretuak (II. Kapituluak) eta Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak 1994ko apirilaren 13an emandako Aginduak arautzen dute, eta 2017ko ekainaren 7an argitaratu zen EHAAan.

## 3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Hartutako neurrien helburua da desgaitasun sortzetikoa nahiz eratorria duten pertsonen laneratzea bultzatzea, enpresa arrunteko lanpostuak eskuratu ditzaten. Finean, diru-laguntzak ematen zaizkie enpresei, desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntza horiek finantzatzeko baliabide ekonomikoak 700.000 eurokoak izan dira 2017an.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua (2017rako Kreditua): 700.000 €

Kontratatatu diren pertsonak: 200

**Emaitza errealak:**

Gauzatutako aurrekontua: 528.690 €

Kontratatatu diren pertsonak: 159

**Emaitzen azterketa, erabilgarritasun eta eragin soziala:**

Aurreko urtean baino emaitza hobeak lortu dira. 2016. urtearen aldean, desgaitasuna duten 19 pertsona gehiagoren kontratazioa lagundu da 2017an. Desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean eta kontratu mugagabeen bidez laneratzen laguntzen du programa honek, eta erabilgarritasun eta eragin sozial handiak ditu kolektibo horretan dauden pertsonen gainean, lan babestuaz bestelako lan-aukerak zabaltzen dizkielako.



## 1.- Izenburua

**Enplegua sustatzeko tokiko laguntzak. Tokiko enplegua garatu eta sortzeko proiektuak**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2017ko uztailaren 27koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez argitaratzen da enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdia, 2017. urterako.

Lanbideren Administrazio Kontseiluak uztailaren 26an hartutako erabakiaren bidez onartu zen deialdia, eta uztailaren 28an argitaratu zen EHAAn.

## 3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei laguntzak ematea, enplegua sortzeko proiektuak abian jar ditzaten. Proiektu horiek eragina izan behar dute beren jardun-eremuko lurraldearen garapen sozioekonomikoan eta modernizazioan, eta modu orekatuan eskaini behar dituzten enplegu-aukerak Euskadiko eskualde guztietan; betiere, 2020 Euskal Enplegu Estrategiarekin bat etorrira eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa beteta.

Era berean, eta xede hori bera betetzeko, enpresei diru-laguntzak ematea aurreikusten da, toki-erakundeek sustatutako proiektu estrategikoen esparruan.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden pertsonen enplegagarritasuna hobetzea da deialdi honen azken xedea.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 22.000.000 eurokoak dira, horietatik Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2017ko aurrekontuko arruntekoak dira 12.000.000 euro, eta 2018ko konpromiso-kreditukoak 10.000.000 euro.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 22.000.000,00 €

Ekintzak aurrezte dituzten udalak eta/edo mankomunitateak: 52

Laneratutako pertsonen kopurua: 2.200

**Emaitza errealak (behin-behinekoak):**

Gauzatutako aurrekontua: 20.939.517,63

Ekintzak aurrezte dituzten udalak eta/edo mankomunitateak: 52

Laneratutako pertsonen kopurua: 2.447.-

**Emitzen azterketa, erabilgarritasun eta eragin soziala:**

Gaur egun eskura ditugun datuei erreparatuta, datuak oso onak direla ikusten da, aurreikusitakoak baino handiagoak baitira parte-hartze datuak eta tokiko eta eskualdeko enplegu-planen baitan kontratatutako pertsonen kopuruak.



## 1.- Izenburua

**Laneratze-enpresetarako laguntzak**

## 2.- Araua

44/2007 Legea, abenduaren 13koa, laneratze-enpresen araubidea erregulatzen duena.

EBAZPENA, 2017ko maiatzaren 25ekoa, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiarena; horren bidez, 2017. urterako argitaratzen da laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzen deialdia. Justizia, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak 2009ko maiatzaren 4an eman zuen aginduaren bidez araututako laguntzak dira.

## 3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Laneratze-enpresak bitarteko bat dira, eta Eusko Jaurlaritzak, enpresa horien bidez, gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko politika publikoak gauzatzen ditu; horrez gainera, beste xede batzuk dira egoera kalteberan dauden kolektiboak, bazterketa-egoeran dauden pertsonak eta baztertuak izateko arriskuan daudenak lan-merkatu arruntan laneratzeko laguntza ematea, akonpainamenduaren bidez gauzatutako laneratze- eta gizarteratze-prozesuen bitartez.

Laneratze-enpresak sortzeko laguntzak ematen zaizkie enpresa horien sustatzaileei. Merkatu-azterlanak egiteko laguntzak dira, eta azterlan horiei esker jakiten da enpresa horiek sortzea bideragarria den ala ez.

Laneratze-enpresen iraunkortasunerako laguntza hauek ematen dira:

- Aktibo finkoetan egindako inbertsioa.
- Gizarteratze-prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortzea eta mantentzea.
- Produkzioari laguntzeko teknikarientzako lanpostuak sortzea eta mantentzea.
- Laneratzeko bidean laguntzeko teknikarientzako lanpostuak sortzea eta mantentzea.
- Merkatu-azterlanak egiteko laguntza teknikoak.
- Prestakuntza.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdiko laguntzak finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak 10.320.822,00 eurokoak dira guztira.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua:  $8.200.00,00 + 2.120.822,00 = 10.320.822,00$

Laneratze aktiboko enpresak: 52

Kontrataturako langileak: 480

Laneratzen laguntzeko zenbat teknikaririk jaso duten diru-laguntza: 120

**Emitza errealak:**

Gauzatutako aurrekontua: 10.097.727,06 €

Laneratze aktiboko enpresak: 38

Kontratututako langileak: 612

Laneratzen laguntzeko zenbat teknikarik jaso duten diru-laguntza: 119

**Emitzen azterketa, erabilgarritasun eta eragin soziala:**

Positiboak dira emaitzak, eta horrek onura egiten dio programa honen erabilgarritasun eta eragin sozialari. Programaren helburua da baztertuta edo baztertuak izateko arriskuan diren pertsonak laneratzea; izan ere, horiek dira egoera okerrean daudenak bizi dugun krisialdi orokorrari aurre egiteko.



## 1.- Izenburua

**Laguntzak Sintel enpresako langileei**

## 2.- Araua

- 2012ko apirilaren 18ko agindua, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuak arautzen dituen diru-laguntzak emateko prozedura arautzekoa.

(Otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretua, berriro laneratzen laguntzeko neurriak ezartzen dituena eta laguntza bereziak arautzen dituena enplegua erregulatzeko 76/2000 espedientean (2001eko martxoaren 8koa) eta 25/2001 espedientean (2001eko uztailaren 31koa) sartutako langileentzat (abenduaren 16ko 1783/2011 Errege Dekretuak aldatu egin zuen gerora).

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2017ko uztailaren 26ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez egin zen 2017rako baliabide-esleipena (EHAA, 2017ko uztailak 28).

## 3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Sintel enpresan egin ziren enplegua erregulatzeko espedienteetan sartu ziren langileak berriro laneratzen laguntzea eta laguntza bereziak ezartzea langile horientzat. Hilero ordaintzen dira laguntzak, eta langile-ohiek Gizarte Segurantzarekin izenpetu zuten hitzarmen bereziaren kostua ordaintzeko diru-zenbateko gehigarriak izan daitezke.

Erretiroa hartzeko adina bete arte luza daitezke laguntza hauek.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartearen

Zenbateko osoa 154.086 eurokoa da, eta, horietatik, 2017ko ordainketa-kredituari dagozkio 28.800 euro. Hurrengo urteetarako (2018 eta 2022 urteen bitarteko) konpromiso-kredituei dagozkie gainerako zenbatekoak.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 154.086,00 €

Langile onuradunen kopurua: 4

**Emaitza errealak:**

Gauzatutako aurrekontua: 82.462,01 € (2017ko ordainketa-kreditukoak 10.702,01 € eta hurrengo urteetako, 2018 eta 2022 urteetako, konpromiso-kredituen konturakoak 71.760,00 €).

Langile onuradunen kopurua: 3





**Eraitzen azterketa, erabilgarritasun eta eragin soziala:** Lan-merkatuak egun bizi duen egoerari erreparatuta, ikusten da krisiaren aurretik baino pertsona gehiagok izan dezaketela laguntza hau eskatzeko eskubidea; hori horrela, aurrekontuetan egin diren aurreikuspenak beste egoera egonkorrago batzuetan egingo liratekeenak baino handiagoak dira. Zenbatekoen aurreikuspena egitean, beraz, urtero 4 eskaera gehiago egin daitezkeela hartu da kontuan.



## 1.- Izenburua

**Enplegu-zentro berezietan jarduera profesionala laguntzeko unitateak**

## 2.- Araua

469/2006 Errege Dekretua, apirilaren 21ekoa, lanbide-jarduerari laguntzeko unitateak arautzen dituen, Enplegu Zentro Berezien egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuen esparruan.

1/2013 LED, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoan eta 2017. urtean enplegu-zentro berezietan jarduera profesionala laguntzeko unitateak finantzatzeko laguntzen deialdia, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2017ko maiatzaren 24an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez onartutakoa. (EHAA, 2017ko ekainak 7).

## 3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Enplegu-zentro berezietan jarduera profesionala laguntzeko unitateetako langileak kontratatuzko diru-laguntzak ematea: Profesional askok osatutako lantaldeak dira laguntzeko unitateak, eta unitate horien laguntzarekin, desgaitasuna duten pertsonen eta lanpostu bat eskuratzeko prozesuan oztopo eta eragozpen handiak dituzten pertsonen laneratzeko zailtasunak gainditzeko laguntza ematen da enplegu-zentro berezietan, baita lanpostu horietan mantentzeko laguntza ere. Desgaitasuna duten pertsonak gizartean integrazio osoa izango dutela bermatzen dute enplegu-zentro berezietako egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuek.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntzak finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak 4.200.00 eurokoak dira 2017an.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua (2017rako Kreditua): 4.200.000 €

Laguntzeko unitateak: 37

Desgaitasuna duten erabiltzaileak: 4.200

**Emaitza errealak:**

Gauzatutako aurrekontua: 4.200.000 €

Laguntzeko unitateak: 37

Desgaitasuna duten erabiltzaileak: 4.367

**Emaitzen azterketa, erabilgarritasun eta eragin soziala:**

Espero zena baino handiagoa izan da baliabideen eskaera; beraz, ezarrita zegoen kreditua ez da nahikoa izan enplegu-zentro bereziek eskatzen zutena ordaintzeko. Hori horrela, hainbanatu egin behar izan dira zenbatekoak, zer laguntza emango den zehazteko.



## 1.- Izenburua

**Lehen Aukera programa**

## 2.- Araua

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2017ko uztailaren 26ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onartutako deialdia (EHAA, 2017ko uztailak 28).

## 3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak (16 eta 30 urte bitartekoak) beren titulazioarekin lotutako enpleguetan eta praktikaldian kontratatzea, gazte horien enplegarritasuna hobetzeko neurri gisa. Enplegarritasun hori hobetu nahi da lanbide-esperientzia lortuta eta haien laneratzea sendotuta.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 4.000.000 eurokoak dira; horietatik, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2017ko ordainketa-kredituari dagozkio 2.000.000 euro, 2018ko konpromiso-kredituari 1.846.154 euro, eta 2018ko ordainketa-kredituari 153.846 euro.

Deialdi hau finantzatzeko bideratutako baliabide ekonomikoak honela banatuko dira:

- a) 3.846.154 euro lan-kontratu mugagabeak eta praktikaldiko kontratuak finantzatzeko. Aurrekontu horretatik 2.000.000 euro 2017ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 2018ko konpromiso-kredituari 1.846.154 euro.
- b) 153.846 euro erabiliko dira 3. artikuluan adierazten diren erakunde laguntzaileek enplegu-eskaintzak hartu, erregistratu eta finantzatzeko, eta 2018ko ordainketa-kredituaren konturako zenbatekoa izango da.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua (2017rako Kreditua): 2.000.000,00 €; horietatik, 2018ko konpromiso-kredituari dagozkio 1.864.154,00 € eta 2018 ordainketa-kredituari 153.846,00 €. Guztira: 4.000.000,00 €

Lehen lana eskuratu duten pertsonen kopurua: 962

**Emaitza errealak:**

Gauzatutako aurrekontua: 380.141,42 € (2017ko arrunta), 1.863.074,00 € kontratuetan, 25.500,00 € erakunde laguntzaileek eta 59.840,00 € (2018ko arruntaren tramitazio aurreratua).

Lehen lana eskuratu duten pertsonen kopurua: 498

**Emitzen azterketa, erabilgarritasun eta eragin soziala:**

Ez dira espero ziren emaitzak lortu; hori ikusita, Lanbidek eta eragile ekonomiko eta sozialek egoera horren atzean dauden arrazoen gaineko hausnarketa bat abiatu dute, programaren eragina handitzeko proposamenak lantzeko. Hori horrela, sakon berraztertzen ari dira 2018ko deialdiaren eskakizunak eta pertsonak hautatzeko eta kontratatzekeo prozesuak, baita laguntzen zenbatekoak ere. Emaitzak hobetu egingo dira, zalantzarik gabe, lan horren ondorioz.



## 1.- Izenburua

**Desabantaila-egoeran dauden kolektiboei orientazioa emateko ekintzetarako laguntzak**

## 2.- Araua

Ebazpena, 2017ko uztailaren 27koa, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan desabantaila-egoeran dauden kolektiboetako pertsonentzat enplegurako orientazio-ekintzak egin eta -zerbitzuak emateko laguntzen 2017ko deialdia argitaratzeko dena (EHAA, 2017/07/28).

## 3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoan desabantaila-egoeran dauden kolektiboetako pertsonen zuzendutako enplegurako orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak gauzatzea da xedea, eta, horretarako, laguntzak ematen zaizkie Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan gauzatzeko baldintzak betetzen dituzten erakundeei.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntzak finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak 2.802.790 eurokoak dira; horietatik, 2017ko ordainketa-kredituaren kontura izango dira 1.401.395 euro, eta 2018ko konpromiso-kredituaren kontura 1.401.395 euro.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua, aurrekontuetan: 2.802.790,00 €

Onuradunak: 12.000

**Emaitza errealak:**

Gauzatatutako aurrekontua: 2.802.790,00 €

Onuradunak:

Gizarte-bazterketako egoeran daudenak: Gizonak: 2626 Emakumeak: 2320

Desgaitasuna duten pertsonak: Gizonak: 675 Emakumeak: 391

Ijitoen kolektiboa: Gizonak: 363 Emakumeak: 382

Pertsona espetxeratuak: Gizonak: 165 Emakumeak: 52

**Emaitzen azterketa, erabilgarritasun eta eragin soziala:**

Laneratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboetako pertsonak erakunde espezializatuen bidez hartzeko mekanismoa da. Laguntza hau izango ez balitz, arreta pertsonalizatua izango lukete kolektibo horiek, baina ez litzateke espezializatua izango, eta horrek lan-orientazioko gabeziak sorraraz ditzake.



## 1.- Izenburua

**Enplegu-zentroen zerbitzua garatzeko laguntzak**

## 2.- Araua

Ebazpena, 2017ko uztailaren 27koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; horren bidez, 2017. urterako argitaratzen da Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan Enplegu Zentroen Zerbitzua garatzeko laguntzen deialdia. (EHAA, 2017/07/28).

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Enplegu Zentroen Zerbitzuaren garapena, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 1.892.000 € (2017ko ordainketa-kredituaren kontura 946.00,00 € eta 2018ko konpromiso-kredituaren kontura 946.00,00 euro).

Onuradunak: 40.0000

**Emaitza errealak:**

Gauzatutako aurrekontua: 1.892.000 €

Onuradunak: 2.596 emakume eta 3.778 gizon.

**Emaitzen azterketa, erabilgarritasun eta eragin soziala:**

Zerbitzuaren eskaintza-denbora izan da pertsona gutxi hartu izanaren arrazoia. 2015eko deialdia 2017ko otsailean amaitu zen, eta 2017ko deialdia 2017ko uztailean argitaratu ondoren, 2017ko abenduan ebatzi zen; beraz, prestazio-denbora efektiboa bi hilabetetik beherakoa izan da.

Urte osorako kalkulueta zabaltzen baldin badugu bi hilabete eskasetan hartu diren pertsonen kopurua, hartutako pertsonen kopuru "teorikoa" 38.000 pertsonakoa izango litzateke, urte osorako ezarri den 40.000 pertsonako helburutik askoz ere gertuago.



## 1.- Izenburua

**Orientazio orokorra - enplegurako orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak garatzeko laguntza-deialdia**

## 2.- Araua

Ebazpena, 2017ko uztailaren 27koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan enplegurako orientazio-ekintzak egin eta -zerbitzuak emateko laguntzen 2017ko deialdia argitaratzeko dena.

## 3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Enplegurako orientazio-prozesuak garatzea, horien jarraipena bermatzea eta kudeatzea.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntzak finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak 2.996.250 eurokoak dira; horietatik, 2017ko ordainketa-kredituaren kontura izango dira 1.498.125 euro, eta 2018ko konpromiso-kredituaren kontura 1.498.125 euro.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 2.996.250,00 €

Onuradunen kopurua: 38.000

**Emaitza errealak:**

Aurrekontua: 2.996.250,00 €

Onuradunen kopurua: Gizonak: 13.316 Emakumeak: 12.459

**Emaitzen azterketa, erabilgarritasun eta eragin soziala:**

Bulegoei laguntza emateko mekanismoa, Lanbiden izena emanda dauden pertsonen arreta pertsonalizatua emateko. Deialdi hau egingo ez balitz, Lanbidek ez luke arreta hori modu eraginkorrean emateko baliabide nahikorik izango.





## 1.- Izenburua

**35 urtetik gorako pertsona langabeak euskal enpresen kanpoko lantokietan kontratatzea**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2017ko uztailaren 27koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez argitaratzen da euskal enpresen kanpoko lantokietan 35 urtetik gorako langabeak kontratatzeko 2017ko laguntzen deialdia. EHAAn argitaratua, 2017ko uztailaren 28an.

## 3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek 35 urtetik gorako pertsonak kontratatzeko laguntzak arautzen ditu. Kualifikazio eta/edo eskarmentu profesionala izan behar dute pertsona horiek, eta ezaugarri horiekin lotutako enpleguak bete behar dituzte, enpresen nazioartekotze-prozesuetan. Lan hori kanpoko lantokietan egin behar da, partaidetutako enpresetan, enpresatalde bereko beste enpresa batzuetan, edo, kanpoan kokaturiko enpresekin, baldin eta euskal enpresek horiekin lankidetzaren hitzarmenak edo zerbitzu emateko kontratuak baldin badituzte. Kontratuak 12 hilabeteko iraupena izan behar dute gutxienez, eta, horietatik, kanpoan dauden lantokietan egin behar dira 6 hilabete. Lanaldi osoko kontratuak dira.

Helburuak: 35 urtetik gorako pertsonen lan-aurreikuspenak indartzea eta hobetzea, eta euskal ekonomiaren lehiakortasuna eta lan-merkatuaren kalitatea hobetzen laguntzea.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 400.000 eurokoak dira; horietatik, 2017ko kreditu arruntaren kontura dira 200.000 euro eta 2019ko aurrekontuko konpromiso-kredituaren kontura 200.000 euro.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua (2017rako Kreditua): 400.000 €

35 urtetik gorakoei egindako kontratuen kopurua: 18

Parte hartu duten enpresen kopurua: 15

**Emaitza errealak:**

Gauzatutako aurrekontua: 0 €

35 urtetik gorakoei egindako kontratuen kopurua: 0

Parte hartu duten enpresen kopurua: 0

**Emitzen azterketa, erabilgarritasun eta eragin soziala:**

Enpresek denbora laburra izan dute eskaerak egiteko (2017ko urriaren 10etik uztailaren 29ra), eta egoera horren ondorioz, behera egin du eskaeren kopuruak.

Bestalde, enpresek uko egin diete eskaerei, ez dutelako eskatutako profila duten izangairik topatu. Era berean, ezetsi egin da deialdi bat, ez direlako deialdiko betekizunak bete.



## 1.- Izenburua

**Gazte langabeak atzerrian ezarritako euskal enpresetan praktiketan kontratatzeko laguntzak**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2017ko uztailaren 27koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bidez, euskal enpresek kanpoan dituzten lantokietan gazte langabeak praktiketan kontratatzeko laguntzen 2017ko deialdia argitaratzen da. EHAAn argitaratua, 2017ko uztailaren 28an.

## 3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Deskribapena: EAeko enpresek 34 urteko edo gutxiagoko pertsonak praktikaldian kontratatzeko laguntzak arautzen ditu. Kualifikazioa edo eskarmentu profesionala izan behar dute pertsona horiek, langabezian egon behar dute eta ez dute aurretiazko lan-eskarmenturik izan behar beren titulazioarekin lotutako lanetan. Lan hori kanpoko lantokietan egin behar da, partaidetutako enpresetan, enpresa-talde bereko beste enpresa batzuetan, edo, kanpoan kokaturiko enpresekin, baldin eta euskal enpresek horiekin lankidetza-hitzarmenak edo zerbitzu emateko kontratuak baldin badituzte. Kontratuek 12 hilabeteko iraupena izan behar dute gutxienez, eta, horietatik, kanpoan dauden lantokietan egin behar dira 6 hilabete. Lanaldi osoko kontratuak dira.

Helburuak: Gazteen laneratzea, lan-eskarmentuaren eskurapena eta gazteen kualifikazioaren eta talentuaren garapena bultzatzea; eta kualifikazio tekniko eta profesionaleko pertsonak behar dituzten enpresei laguntzea beren nazioartekotze-prozesuetan.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartearen

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.010.000 eurokoak dira; horietatik, 2017ko aurrekontu arruntaren kontura dira 400.000 €, eta 2018ko konpromiso-kredituaren kontura 610.000 €.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 1.010.000 €

Azken onuradunen kopurua: 80 kontratu eta 50 enpresa.

**Emaitza errealak:**

Gauzatutako aurrekontua: 52.400 €

Azken onuradunen kopurua: 4 kontratu eta 4 enpresa.

**Emitzen azterketa, erabilgarritasun eta eragin soziala:**

Enpresek denbora laburra izan dute eskaerak egiteko (2017ko uztailaren 29tik urriaren 10era), eta egoera horren ondorioz, behera egin du eskaeren kopuruak.

Bestalde, enpresek uko egin diete eskaerei, ez dutelako eskatutako profila duten izangairik topatu edo antolamendu-arrazoiengatik.



## 1.- Izenburua

**Enplegu lagundua, desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean integratzeko neurri gisa**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2017ko uztailaren 27koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, argitaratzen da desgaitasunak dituzten pertsonak lan-merkatu arruntean integratzeko neurri gisa enplegu lagunduaren jardunak garatzera bideratutako 2017ko deialdiaren babesean emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda. EHAAn argitaratua, 2017ko uztailaren 28an.

## 3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Deskribapena: Enplegu lagunduko jarduerak egiteko laguntzak eta pizgarriak arautzen dira, desgaitasuna eta laneratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonak lan-merkatu arruntean laneratzeko tresna izateko eta enpresak laguntzeko, bai kontratatu aurretik, bai pertsona lanpostua betetzen hasi ondoren. Enplegu lagunduko unitateetako profesional espezializatuek (lan-arloko prospekziogileek eta prestatzaileek) ematen dute laguntza hori, jardueren multzo integratu baten bidez.

Helburua: Enplegu lagunduko unitateen jarduera diruz laguntzeko, konpromiso batzuk hartu eta helburu batzuk bete behar dira, hala nola desgaitasuna eta laneratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen enpleguko eta laneratzeko aukeren prospekzioak egin behar dira. Pertsona horiek Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egon behar dute, enplegu-eskatzaile gisa. Pertsona hauen laneratzeari lehentasunak ematen dira:

- desgaitasun intelektuala, buru-gaixotasuna edo garuneko paralisia duten pertsonak, % 33ko edo hortik gorako desgaitasun-gradua aitortua zaienak.
- desgaitasun fisikoa edo zentzumenezkoa duten pertsonak, % 65eko edo hortik gorako desgaitasun-gradua onartua dutenak; edo gorak edo entzuteko desgaitasuna duten pertsonak, %33ko edo hortik gorako minusbalotasun-gradua onartua dutenak.

Desgaitasuna duten emakumeen laneratzeari bultzatzeko, % 10 handituko da diru-laguntzaren zenbatekoa, baldin eta emakume bat kontratatzen baldin bada.

Zehaztutako desgaitasun mota horiek dituzten langileak, enplegu-zentro berezietan aritutakoak, lan-merkatu arruntean laneratzeari aurreikusten da, eta dagokion deialdiaren aurreko urteetan laneratutako pertsonari eta enpresei laguntzea.



4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.000.000 eurokoak dira; horietatik, 2017ko aurrekontu arruntaren kontura dira 500.000 euro eta 2018ko aurrekontuko konpromiso-kredituaren kontura 500.000 euro.

**Aurreikusitako emaitzak:**

1.000.000 €-ko aurrekontua

Enplegu lagunduko ekipoen kopurua: 9

Desgaitasuna duten pertsonen egindako kontratuen kopurua: 57

**Emaitza errealak:**

2017an gauzatutako aurrekontua: 948.997,87 €

Enplegu lagunduko ekipoen kopurua: 9

Desgaitasuna duten pertsonen kontratazioak: 70

Desgaitasuna duten pertsonen jarraipen-prozesuak: 153

Enpresetara egin asmo diren bisiten kopurua: 2.051

**Emaitzen azterketa, erabilgarritasun eta eragin soziala:**

2016ko enplegu lagunduaren onuradun izan diren pertsonen lan-egoeraren jarraipena egin da, 6 hilabetera, pertsona guztien % 75en gainean (39 pertsona), gainerako % 25ek (13 pertsona) ez duelako osatu kontratua amaitu eta ebaluazioa egin zen bitartean igaro beharreko hilabete-kopurua. 2016. urtean, 51 kontratuk bete zuten finantziatuak izateko baldintzak, eta, horietatik, % 59 (30 pertsona) lanean egoera aktiboan jarraitzen zuen sei hilabete igaro ondoren (% 6 enplegu-zentro berezi batera bueltatuta ari zen lanean).

Langabeziara itzuli zen % 16a (8 pertsona).

Emaitza horiek erakusten dute enplegu lagundua dela desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean integratzeko neurri eraginkorrenetako bat; gainera, horrelako neurrien bidez, bete egiten da azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duenak, egiten duen agindu orokorra eta, berariaz, arau horren I. tituluko VI. kapituluak arautzen duena, kapitulu horretan administrazio publiko eskudunei eskatzen baitzaie enpleguko eta sustapen profesionaleko aukerak sustatzeko lan-merkatuan, eta pertsona horiek enplegua bilatzeko, lortzeko mantentzeko eta berriro laneratzeko laguntzak sustatzeko.

2017ko emaitzen ebaluazioa egite-bidean da une honetan.



## 1.- Izenburua

**Gazteen itzulerarako programa**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2017ko urriaren 4koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez gazteak Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietan kontratatzeko xedez gazteak itzultzeko laguntzen 2017rako deialdia argitaratzen baita. EHAAn argitaratua, 2017ko urriaren 9an.

## 3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen helburua da 35 urtetik beherako gazteak kontratatzeko ematen diren laguntzen oinarriak ezartzea eta laguntza horiek arautzea. Berariaz, Euskal Autonomia Erkidegora itzultzen diren gazteak kontratatu behar dituzte euskal enpresek, eta laguntza horiek euskal lan-merkatuan laneratzen laguntzeko neurri izan nahi dute.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.766.667 eurokoak dira; horietatik, 2017ko ordainketa-kredituaren kontura dira 1.500.000 euro, 2018ko konpromiso-kredituaren kontura 166.667 euro, eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren 2018ko aurrekontuaren kreditu arruntaren kontura 100.000 euro.

**Aurreikusitako emaitzak:**

Aurrekontua: 1.766.667 €

Enpresa-eskatzaileen kopurua: 40

Eskatutako kontratazio-postuen kopurua: 70

**Emaitza errealak:**

2017an gauzatutako aurrekontua: 12.680 €

Enpresa eskatzaileen kopurua: 5

Eskatutako kontratazio-postuen kopurua: 10

Enpresa-onuradunen kopurua: 1

Gazteen kontratuen kopuru onartua: 1

**Emaitzen azterketa, erabilgarritasun eta eragin soziala:**

Deialdia hilabeteko epe laburrean izan da indarrean. Epe motza izan denez, eskaera gutxi egin dira, eta kudeatu diren eskaeretan, enpresa gehienek ez dute hautatze-prozesuak egiteko denbora nahikorik izan.